

ERAKUSKETA

MOBILIZATU GIZA ESKUBIÐEEN ALDE! MUGI ZAITEZ!

UN
ETXEA

ASOCIACIÓN
DEL PAÍS VASCO
PARA LA UNESCO

UNESCO SUSTATZEKO
EUSKAL HERRIKO
ELKARTEA



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA GIZA
EDUKIAREN GALIA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS

ERAKUSKETA

MOBILIZATU GIZA ESKUBIDEEN ALDE! MUGI ZAITEZ!

Ba al dakizu dagoeneko 75 urte bete direla Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zenetik? Ibilbide luzea izan duen arren, oraindik pertsona askori urratzen zaizkio bere giza eskubideak egunero mundu osoan, baita gugandik gertuen dagoen testuinguruan ere. Horregatik, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948an onartu zuenean bezain egokia da oraindik ere aldarrikapen hori. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 75. urteurrenaren harira, eta Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren [#Standup4humanrights](#) kanpainaren baitan, UN Etxea – UNESCO sustatzeko Euskal Herriko elkarteak Ane Pikaza euskal artistak ilustratutako erakusketa ibiltari honen sorrera sustatu du.

Helburua da giza eskubideak sustatzea sexu-, kultura- eta aniztasun funtzionalaren ikuspegitik, ikusleen konpromisoa eta ekintza sustatuz. Pertsonen oinarrizko eskubide eta askatasunak ezagutzera, betetzera eta haiei buruz gogoeta egitera gonbidatzen zaitugu, eta gizarte justu eta askotarikoen eraikuntzan parte hartzera. Erakusketa hau UN Etxea – Asociación del País Vasco para la UNESCO erakundearen ekimena da, eta, egitasmoa gauzatzeko, Amesten, Mujeres con Voz eta Naizen elkarteekin aritu da elkarlanean. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiaren babesa ere badu.



1. PANELA

DIBERTSITATE FUNTZIONALA

Eta zuk, zer dakizu dibertsitate funtzionalari buruz?

Entzun gure podcasta



BIZKAIA ANIZTASUNEN ALDE



Ba al zenekien *dibertsitate funtzional* terminoa *desgaitasun* terminoaren ordezkoa dela eta pertsona guztiak desberdintzat hartzen dituela? Esanahi gutxiesgarria zuten beste batzuk (hala nola *desgaitasun* edo *minusbaliotasun*) ordezkatzeko sortu zen *dibertsitate funtzional* terminoa.

Ba al zenekien nazioarteko hitzarmen bat dagoela dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskubideak eta duintasuna babesteko? Hitzarmen hori nazioarteko tresna bat da, eta honako hauek sustatzen ditu: norbanakoen autonomia; nor bere erabakiak hartzeko askatasuna; pertsonen independentzia; diskriminaziorik eza, eta guztiok gizarteko benetako kide eta partaide izatea.

Alabaina, munduko biztanleen % 15ek motaren bateko dibertsitate funtzionala du; horietatik, % 80 langabezian dago eta batezbestekoak baino askoz soldata baxuagoa kobratzen du. Beste alde batetik, dibertsitate funtzionala duten neskatoen eskolatzeko probabilitatea mutikoena baino txikiagoa da.



2. PANELA

KULTURA ANIZTASUNA

Eta zuk, zer dakizu dibertsitate kulturalari buruz?

Entzun gure podcasta



BIZKAIA ANIZTASUNEN ALDE



Ba al zenekien guztiok dugula identitate kulturala eta, oro har, ez garela hartaz jabetzen gure izateko moduaren parte delako? Ba al zenekien Bizkaian 120 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla? Ba al zenekien Euskadin 119 herrialdetako pertsonak bizi direla elkarrekin? Eta hamar erlijiotik gorako fededunak bizi direla?

“Kulturak forma ezberdinak hartzen ditu espazioan eta denboran. Aniztasun hori gizateria osatzen duten gizarteen eta taldeen nortasunen originaltasunean eta aniztasunean adierazten da. Kultura-aniztasuna – trukeen, berrikuntzaren eta sormenaren iturri dena– behar-beharrezkoa da gizon-emakumeentzat, biologia-aniztasuna izaki bizidunentzat behar-beharrezkoa den bezala” (UNESCOren Aniztasun Kulturalari buruzko Aldarrikapen Unibertsalaren 1. artikulua).

Hala ere, arrazakeriaren, xenofobiaren eta diskriminazioaren eraginpean jarraitzen dugu. Gorrotoaren diskurtsoak kalteak eragiten dizkie pertsoneri, eta indarkeria bultzatuz, baina, horrez gain, inklusioaren, aniztasunaren eta giza eskubideen aurkako erasoak da.



3. PANELA

SEXU ANIZTASUNA

Eta zuk, zer dakizu dibertsitate sexualari buruz?

Entzun gure podcasta



BIZKAIA ANIZTASUNEN ALDE



Ba al zenekien nagusi diren sexu- eta genero-arauekin bat ez datozen ikasleei –hau da, lesbianeiei, gayeiei, bisexualerik, transexualerik, transgeneroerik edo intersexualerik (LGBTI+)– urratzen zaizkiela gehien beren eskubideak? Bazenekien LGBTI+ multzoko gazteen % 42k jasan dituela jazarpena, isekak, irainak edo mehatxuak eskolan, sexu-orientazioagatik, sexu-identitateagatik edo sexu-adierazpenagatik? Bazenekien herrialde batzuetan mota horretako ikasleen % 85ek ere pairatu behar izaten dituela indarkeria eta eskola-jazarpena?

Ez dira gauza bera sexu-orientazioa, sexu-identitatea, genero-identitatea, sexu-adierazpena eta sexu-ezaugarriak. Horietako bakoitzak pertsona baten alderdi desberdin eta independentea adierazten du.

Ezinbestekoa da elkarrekin lan egitea mota guztietako indarkeria eta diskriminazio LGTBIfobikoak amaiazteko, horrela pertsona guztiek senti dezaten seguru daudela, eta onartzen eta errespetatzen dituztela.



4. PANELA

BIZIKIDETA- SUNA ETA DESPAREKO- TASUNEN MURRIZKETA

Gehiago jakin nahi duzu?

Bisitatu hemen gure webgunea



Ba al zenekien munduko toki guztietan milioika pertsonak jasaten dituztela diskriminazioak adinagatik, sexuagatik, desgaitasunagatik, etniagatik, jatorriagatik, erlijioagatik edo maila ekonomikoagatik? Diskriminazio horiek desparekotasunak dauden testuinguruetan gertatzen dira, eta desparekotasun horiek aberastasunaren banaketaren, eta baliabideen, energiaren eta aukeren eskuragarritasunaren bidez adierazten dira.

Desparekotasunen murrizketa lehenetsuntzat hartzen da Nazio Batuetako estatu kide guztiek onartutako Garapen Agendan. Agenda horrek pertsonak jartzen ditu politiken erdigunean, eta garrantzitsutzat jotzen du indarkeriarik gabeko gizarte baketsuak, justuak eta inklusiboak sustatzea.

Bakean bizitzeak desberdintasunak onartzea esan nahi du, eta gainerakoak entzuteko, errespetatzeko eta onartzeko gaitasuna izatea. Bizikidetasuna prozesu positiboa, dinamikoa eta parte-hartzailea da; prozesu horretan, elkarrizketa sustatu behar da, eta gatazkak lankidetzan eta elkar ulertzean oinarrituta konpondu behar dira.



6. PANELA

KON PRO MISOA

KONPROMISO hau neure egiten dut:

Zure eskubideak errespetatuko ditut, edozein zarela ere. Zure eskubideak defendatuko ditut, zurekin ados ez egonda ere.

Edozein pertsonari giza eskubideak ukatzen zaizkionean, guztion eskubideak ahultzen dira; beraz, eskubide horien alde egingo dut.

Ozen hitz egingo dut. Zerbait egingo dut. Nire eskubideak baliatuko ditut zureak defendatzeko.

Igo zure argazkia sare sozialetara [#Standup4humanrights](#) etiketaren bidez.





1. ERANSKINA DIBERTSITATE FUNTZIONALALA



1. PANELA > DIBERTSITATE FUNTZIONALALA

2. PANELA > KULTURA-ANIZTASUNA

3. PANELA > SEXU-ANIZTASUNA

4. PANELA > BIZIKIDETASUNA ETA DESPAREKOTASUNEN MURRIZKETA

5. PANELA > GIZA ESKUBIDEAK

6. PANELA > KONPROMISOA



2. ERANSKINA KULTURA-ANIZTASUNA



[1. PANELA > DIBERTSITATE FUNTZIONALA](#)

[2. PANELA > KULTURA-ANIZTASUNA](#)

[3. PANELA > SEXU-ANIZTASUNA](#)

[4. PANELA > BIZIKIDETASUNA ETA DESPAREKOTASUNEN MURRIZKETA](#)

[5. PANELA > GIZA ESKUBIDEAK](#)

[6. PANELA > KONPROMISOA](#)



3. ERANSKINA SEXU-ANIZTASUNA



[1. PANELA > DIBERTSITATE FUNTZIONALA](#)

[2. PANELA > KULTURA-ANIZTASUNA](#)

[3. PANELA > SEXU-ANIZTASUNA](#)

[4. PANELA > BIZIKIDETASUNA ETA DESPAREKOTASUNEN MURRIZKETA](#)

[5. PANELA > GIZA ESKUBIDEAK](#)

[6. PANELA > KONPROMISOA](#)



4. ERANSKINA BIZIKIDETASUNA ETA DESPAREKOTASUNEN MURRIZKETA



[1. PANELA > DIBERTSITATE FUNTZIONALA](#)

[2. PANELA > KULTURA-ANIZTASUNA](#)

[3. PANELA > SEXU-ANIZTASUNA](#)

[4. PANELA > BIZIKIDETASUNA ETA DESPAREKOTASUNEN MURRIZKETA](#)

[5. PANELA > GIZA ESKUBIDEAK](#)

[6. PANELA > KONPROMISOA](#)



5. ERANSKINA GIZA ESKUBIDEAK



[1. PANELA > DIBERTSITATE FUNTZIONALA](#)

[2. PANELA > KULTURA-ANIZTASUNA](#)

[3. PANELA > SEXU-ANIZTASUNA](#)

[4. PANELA > BIZIKIDETASUNA ETA DESPAREKOTASUNEN MURRIZKETA](#)

[5. PANELA > GIZA ESKUBIDEAK](#)

[6. PANELA > KONPROMISOA](#)